

Goienka

EGUBAKOITZA • 2003ko abenduaren 5a • IV. urtea • 134. zenbakia • DOAN BANATZEKO



JESUS MARI UGALDE / EUSKADI SARIA

"Ikerketarako merezi duten ideiak eta gogoak dituenak lortzen du finantzaketa" /1

Goienka2a

Ibarrekoek hamabost lan berri eraman dituzte Durangora

Antzuolako Elay enpresari emango diote Anton Abbadia saria

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ematen duen Anton Abbadia saria Antzuolako Elay enpresak jasoko du abenduaren 19an. Elayk euskararen erabilera sustatzeko egin duen lana nabarmenduko dute. Duela 12 urte ekin zion Elay Taldeak Euskara Planari. Hala, orain, urte hauetan guztietan lanteria euskalduntzeko enpresak eta langileek egin duten lana saritu du Foru Aldundiak. Egun, 250

langile inguru ditu enpresak, gehienak Antzuolako lau lantegietan (Mexikon ere badu beste bat), eta gehienek dakite euskaraz.

Euskararen normalizazioaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona edo elkartearen jarduna saritzeko jaio zen Abbadia saria 1996an. Iaz Juan Zelaia enpresaburu onatiarrari eman zioten, 1996an Arantzazuko frantziskotarrei eta 1997an AEDri. /5

ASTEKO GAIA: HAUTESKUNDEETATIK SEI HILABETERAKO EGOERA /2-3

Plataformek salatu dute "apartheida"

Udal hauteskundeetatik sei hilabete pasatu dira, eta Debagoieneko herri plataformek bizi duten "apartheid egoera" salatzen ari dira hainbat ekitaldi egin dituzte.

Plataformok legez kanpo geratu zirenetik hona gauza gutxi aldatu da ibarreko udal bizitzan. Osoko bilkuretan parte hartzeko aukera dute, herritar gisan, eta

udal batzuetan aintzat hartzen da euren esana; hala ere, plataformek diote erakundeek ez direla zilegi, eta hauteskundeak errepikatzea eskatzen dute.



"Garaia da apartheid egoera hau konponbidean jartzeko", esan zuten plataformek prentsaurrekoan.

LEIRE KORTABARRIA

'DEBA DIGITALA'

400 mila euro Internet herritarrei hurbiltzeko

Eusko Jaurlaritzak, Debagoieneko Mankomunitateak eta Debesak lankidetzan hitzarmena sinatu dute. Horri esker, *Deba digitala* proiektuak 400.000 euroko dirulaguntza jasoko du. *Deba digitala* proiektuaren helburua, hain zuzen, Informazio Gizarteak herritarrengan duen eragina frogatzea da. Hau da, teknologia berriak eta Internet herritarren eta enpresen esku jartzea. /5



Asteon astekariko azala.

GOIENKARIAREN gehigarri berria aurkeztu dute

GOIENKARIAREkin doan banatuko den *Asteon* teletestaren inguruko gehigarria aurkeztu dute Durangoko azokan. Topaguneak egiten du *Asteon*, Jasone Osoro zuzendari dela, eta urtarriletik aurrera Euskal Herriko herri aldizkariekin batera banatuko dute. Durangon 0. zenbakiaren aleak daude eskuragai. /14

Badago ez daukagun opari bat

elurra

SPORTLAND
FORUM SHOPS
KIROLA ZEURE ESKURA

Sportland Arrasate
Garibai Etorbidea, 2-6

LZE GAZTE MODA

Secundino Esnaola 13 DONOSTIA

Fraiskozuri 5 BERGARA

Olarte 5 ARRASATE

Sei hilabete pasata, ez

- Sei hilabeteko “apartheida” salatzen dute plataformek
- Euren eskaera da berriro udal hauteskundeak egitea
- Alderdi batzuk gertu daude plataformei entzuteko, legea errespetatuz



“Egoera antidemokratikoa” salatu zuten ibarreko herri plataformek joan den martitzenean, prentsaurrekoan.

LEIRE KORTABARRIA

LEIRE KORTABARRIA

Udal hauteskundeak egin zirenetik sei hilabete pasa berri dira, azaroaren 25ean, hain zuzen ere. Orduan nagusi izan zen egoera ezohikoa eta nahasia, ordea, ez da iraganeko kontua, eta gaur ere, bazterrak nahastuta jarraitzen dute.

Debagoieneko herri plataformek gogora ekarri dute pasa berri den urte erdia, eta egoera salatzeke hainbat ekitaldi egin dituzte. Ekitaldi sorta abenduaren 2an, joan den martitzenean,

egindako prentsaurreko batek borobildu zuen. Bertan, ibarreko herri guztietako plataformek honako mezua igorri zuten: “Sei hilabete pasatu ondoren, garaia da pausoak ematen hasteko, eta

Konponbide aldera urratsak ematea eskatu diete EAJ-EA, Aralar eta IU-EBri plataformek

behingoz apartheid egoera konponbidean jartzeko”.

Egoera horren erantzuleak, euren ustez, zeinu guztietako alderdiak dira: “Erasoa ez zen eraginkorra izango, zenbaitzuk era pasiboan lagundu ez balute, gure apartheid egoeraren aurka borrokarik egin gabe, hauteskundearen prozesua normaltasunez burutzen lagundu zutenek eta gero egoera horretatik onura hartzeko ari direnek”, diote plataformok. Horrenbestez, Debagoieneko udal agintean dauden alderdiei zuzendu zitzaizkien: “Bereziki gure eskualdeko agin-

tari moduan daudenei, EAJ-EAk, Aralarrek eta IU-EB-ri enplazamendua egiten diegu: pauso eraginkorrik ematen ez badute, egoera hau demokratikotzat daukela ulertu beharko dugu”.

Osoko bilkuretan euren hitza entzuten da, baina udal guztietan ez da aintzat hartzen

EGOERA HERRIZ HERRI

Hauteskundeak egin zirenetik, Debagoieneko herri plataformak udal bizitzatik kanpo gelditu ziren, eta “apartheid” egoera hori salatu nahi izan dute. Hala ere, egoera ez da guztiz berdina herri batean zein bestean.

Plataformendako egoera txarrenak Bergaran, Arrasaten, Elgetan edo Aretxabaletan daude. Horietan, udalek ez dute plataformekin inongo harremanik izan, eta plataformak udal bizitzatik guztiz kanpo gelditu dira. Egoera apur bat hobea da Eskoriatzan edo Oñatin. Eskoriatza-



Pinu-izei frisoa. Bernizatua, 2,70 m friso garria


10,95 €/m2 1.822 pta/m2 ESKAINTZA!

BRICOCENTRO
Zure brikolaje denda

Uribarri auzoa B2 - S3 ARRASATE

ORDUTEGIA: 10:00 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Zapatu arratsaldeetan irekita.

Tel: 943 71 20 69



Ateak eta zoruak saldu eta jartzen ditugu

Aroztegia orokorrean

Eskatu neurria egindako aurrekontuak

MADINA
ZURAK AROZTEGIA

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea. ARRASATE

Tel.: 943 79 13 78

e-posta: mz@madinazurak.com

Orain,
Brico
Centroren
ondoan!

ohiko egoera nagusi

ko udal funtzionamendua berezia da, eta horrek ahalbidetu du Kontzejupe taldeko herritarrek, legetik irten gabe, udal erabakietan neurri bateko parte hartzea izatea. Oñatin, bestalde, udalak eta Ereitten taldeak ere harreman ona dute, eta plataformakoen hitza aintzat hartzen da. Egoera berezia da Eskoriatzan eta Oñatin: han ere, zinegotzi ez izan arren, gai zerrendaren inguruko informazioa jasotzen dute eta, osoko bilkuretara joaten direnean, eurek esandakoari balio berezia ematen dio udalak. Beste herrietan, ordea, beste edozein herritar bezala tratatzen dituzte udalek.

Ordea, Debagoieneko plataformek honakoa diote: "Guztiok gaude egoera berean, eta hori da, hain zuzen, ordezkaritza sendoa lortu arren, bizitza zibiletik kanpo utzi gaituztela. Gaurko erakundeek ez dute zilegitasunik". Euren eskaera da hauteskunderak berriro egitea.

BESTE ALDERDIEK DIOTENA

Ez du ematen etorkizunean gauzak aldatzeko bidean daudenik. Izan ere, alderdi politiko batzuek urratsak eman dituzte plataformetako herritarrek, legea errespetatuz, udalean parte hartzeko modua izan dezaten. Adibidez, Aralar taldearen erabakia izan zen Bergaran eta Aretxabaletan plataformari egokitu izango zitzaion zinegotzia ez hartzea. Era berean, hainbat proposamen egin zituzten herri horietan; baina proposamenok atzera bota zituzten, bai EAJ-EAK, bai eta plataformek eurek. "Plataformen proposamen bakarra zen guk gure zinegotzietan uko egitea: baina horren ondorioa izango zitekeen Aralar ere legez kanpo gera-



"UDALAK DEMOKRATIZATzea" ESKATZEKO PROTESTA EKITALDIK EGIN ZITUZTEN

Bergaran, Elgetan, Oñatin... Ibarreko herri gehienetan egin dituzte herri plataformek protesta ekitaldiak. Orain sei hilabete gertatutakoa salatzea izan da euren helburua. Sinadura bilketak, kale bilkurak eta enkarteladak egin dituzte. Horien bidez, "apartheid politikoaren bukaera" eskatu zuten, eta baita "Udalak demokratizatzea" ere. Salaketa ekimenen barne, herri bakoitzeko udalari eskaera konkretuak egin dizkiete, euren eskubideak bermatzea eskatuz.

tzea, azkenean. Proposamen errealista bakarra gurea izan da", dio alderdi honek.

Debagoieneko EAJ-EA alderdiak dio: "Egoera aldatzea ez dago gure esku. Euren eskaerak

beteko bagenitu, udalak intsumiso bezala agertuko ginatke eta jazarpen judiziala egingo ligitkete. Hori beste batzuei joko egitea lirateke".

Ezker Batua da hainbat udalagan agintean dagoen beste alderdi bat. Euren aldetik hainbat proposamen ere badaude: Arrasateko taldeak laster aurkeztuko du hango udalean edozein herritarrek parte hartze zabalagoa izan dezan eskatzeko proposamen bat.

Oraingoz, herri bakoitzeko egoeraren arabera, herri plataformon aukera bakarrak dira udal osoko bilkuretara publiko

modura joatea, euren iritzia kontuan hartuko denaren esperoan, edo batzorde informatiboetara joatea, nahiz eta udal guztietan ez zaion euren hitzari balio berezirik ematen.

Gainerako alderdi batzuek borondatea agertu dute, baina legea errespetatu behar dutela diote

Oraingoz, Osoko Bilkuretara joatea da plataformen aukera bakarra, herritar bezala

Eskoriatza, kasu berezi

Eskoriatzako kasua berezia da, ez bakarrik Debagoienean, baita Euskal Herri osoan ere. Izan ere, han, euren eskakizunak lortu ez arren, herri plataformako kideek neurri baten udal bizitzan parte hartzen dute. Han, Kontzejupe plataformako kideek badute zeresana udalean. Euren hitza kontuan hartzen da, eta guztia legediaren barne.

Hori posible da Eskoriatzako udalaren funtzionamendua ez delako Gobernu Batzordeen sisteman oinarritzen. Han, erabakiak bileren bidez hartzen dira, eta horietan parte hartzeko eskubidea du edozein herritarrek ere. Eskoriatzako giroak ere lagundu du: "Herritarren artean giro ona dago, eta guztiok gaude elkarrekin hitz egiteko gertu", azaltzen du plataformako Dorleta Kortazarrek. Udal agintean dagoen EAJ-EAK ere hasieratik agertu zuen hitz egiteko borondatea, beti ere, legediaren barne. Bestalde, PSEko zinegotzi Iñaki Pierruguesek dio: "Hasieratik esan nion alkateari herriko sentsibilitate guztiok tokia izan behar dutela udalean, elkar ulertze kultura baten barne. Egoera ezohikoa da, bai horregatik, bai eta kontuan hartuta PSEko herriko hautagaiak ezin aurkeztea, hil ditzaten beldur direlako".



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Harrera ona egin diote debagoiendarrek 'goiena.net' atariari lehen egunetan

Ibarrekoendako informazio erreferentzia puntua izan nahi du martitzenean aurkeztutako webguneak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Goienak martitzen goizean egin *goiena.net* webgunearen jendaurreko aurkezpena, Arrasateko Arteaga landetxean. Goienako arduradunetz gain, Miren Azkarate, Javier Retegi, Ignacio Lakuntza eta Xabier Huitzi izan ziren bertan.

Arrasateko Arteaga landetxean 40 lagun inguru elkartu ziren martitzen goizean *goiena.net* Interneteko atariaren nondik norakoak jakiteko.

Estepan Plazaola Goienako presidentea gidatu zuen ekitaldia, eta bertaratutakoei ongi etorria egin ostean, aldamenean zirenak aurkeztu zituen: Iban Arantzabal, Goienako Telematika zuzendaria; Javier Retegi, Eusko Ikaskuntzako presidentea; Xabier Huitzi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalizaziorako zuzendaria; Ignacio Lakuntza, Debagoieneko Mankomunitateko presidentea; eta Miren Azkarate, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua. Plazaolaren esanetan, webgunea "e-debagoiena" egitasmoaren zerbitzu bat da, eta etorkizuneko proiektuetan elkarlanean aritu behar dute ibarreko agintariek eta elkarteek".

ERABILERRAZA

Iban Arantzabal Goienako Telematika zuzendariak hartu zuen hitza gero, eta *goiena.net* zer den,

nola erabiltzen den, zein aukera ematen dituen eta norentzat den azaldu zuen. "Edonork erabiltzeko moduan dago eginda. Erraza, garbia eta sinplea da, eta edukiari ematen zaio garrantzia", esan zuen Arantzabalek.

Webguneak harrera ona izan du debagoiendarren artean. 30 lagun harpidetu dira eta 50etik gora izan dira eztabaidetan parte hartu dutenak. Batzuek eztabaidarako gaiak ere proposatu dituzte. Astebetean *goiena.net* gunean guztira bisitatutako orrialdeak 3.500 izan dira.

INTERNETEN KOMUNIKABIDE GUZTIAK Plataforma librean, software librean egin da *goiena.net*, eta Code&Syntax taldearen laguntza izan du.


Eneko Astigarraga Code&Syntax taldeko gerentearen arabera, "Internetek beste komunikabide guztiak barnertzen ditu. Prentsa idatziak argazkiak eduki ditzake, baina ez telebista edo filmatutako irudiak, ezta irratia ere. Telebista ez da ondo moldatzen testu idatzekin... Interneten, aldiz, dena izan dezakegu batera eta batean, segundotan".

Aurkezpenean izan zirenek, beraz, ondo ikusi dute *goiena.net* egitasmoa. Goienak informazioa eta teknologia ondo uztartu dituela eta eskualdea eredu dela izan ziren ekitaldi laburraren ostean entzundakoak.



USOA AGIRRE

Mahaian, ezkerretik eskumara, Retegi, Lakuntza, Azkarate, Plazaola eta Huitzi aurkezpen ekitaldian.



USOA AGIRRE

Gorritiberea, Zabalo eta Goronaeta.



USOA AGIRRE

Huitzi, Velez de Mendizabal eta Retegi.



USOA AGIRRE

Iban Arantzabal GOITBrako berbetan.

JAVIER RETEGI / EUSKO IKASKUNTZA

"Atariak hurbiltasuna eskaintzen du"

Goiena.net ataria Goiena egitasmoaren laugarren umea da. Aurretik daude prentsa, irratia eta telebista. Oso proiektu inportantea da, albisteak emateaz gain zerbitzuak ere eskaintzen dituelako. *Goiena.net* geure kultura eta hizkuntzan egina da, hurbiltasuna eskaintzen du eta teknologia berriak eta informazioa uztartzen ditu.

XABIER HUITZI / FORU ALDUNDIA

"Debagoiena beste eskualdeendako eredu da"

Debagoiena eredu da Gipuzkoako beste eskualdeendako. Gainera, Goienak mundu birtuala aurkeztu badu ere, mundu birtual horren atzean mundu erreala dago. Mundu erreala hori sareratzten asmatu duzue, orain, Goienan. Gipuzkoako Foru Aldunditik *goiena.net*-erako lotura egingo dugu, noski; gustura, gainera.

IGNACIO LAKUNTZA / MANKOMUNITATEA

"Ibarraren kohesiorako egokia izan daiteke"

Hutsuneak betetzen dituen proiektua da *goiena.net* ataria. Debagoienak behar zuen zerbait kohesio gehiago edukitzeko, eta azpiegitura hau oso egokia izan daiteke hori bideratzeko, edo bai, behintzat, bideratzen hasteko. Udalek konpromiso sendoa hartu behar dute proiektu dinamikoak izateko.

MIREN AZKARATE / EUSKO JAURLARITZA

"Teknologiaren aldeko apustua egin da bailaran"

Debagoienean teknologiaren aldeko apustua egiten da, eta proiektu hau eredugarria da, eguneroko errealitatea aurkitu eta protagonista bihurtzen duelako. Egune-tik egunera jende gehiagok egunkarietako webguneetan sartu eta ordenagailu bidez notiziak hartzen ditu, batez ere belaunaldi gazteetakoak.

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL

EGUNEKO MENUA

Lehenengo platera
Udaberri-erroiloa entsalada txinatarrarekin.
Vietnamgo erroilo berezia
Eta abar

Bigarren platera
Ku-bak hiru deliziarekin
Arroz-fideo frijituak ganbekin
Eta abar

Hirugarren platera
Ganbak banbuarekin eta perretxiko txinatarrarekin
Ahatea labean
Eta abar

Prezioa: **6,95 euro**

Edariak:
ardoa, ura, garagardoa edo freskagarriak.
Postrea:
platanu frijituak, piña frijituak, izozkia
intxaurrekin. Kafea edo tea.

Araba etorbidea 3 ARRASATE

Carrión música, s.a.

- Gitarra, baxuak, amplifikadoreak, teklatuak, soinu ekipamenduak.
- Pianoak eta trikitixak errentan hartzeko aukera, eta erosteko.

GABONETAKO
ESKAITZA BEREZIAK!

Manuel Iradier 20 / Dato 42
Tel.: 945 23 07 49
GASTEIZ

M

MEMESA SL

Industri hornidurak

943 71 24 25

Antzuolako Elay enpresak jasoko du aurten Anton Abbadia saria

Lantegia euskalduntzeko egindako lana saritu du Foru Aldundiak

USOA AGIRRE

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero ematen duen Anton Abbadia saria Antzuolako Elay enpresak jasoko du abenduaren 19an. Elayk euskararen erabilera sustatzeko egin duen lana nabarmenduko dute.

Duela 12 urte ekin zion Elay Taldeak euskara planari, eta enpresa euskalduntzen aitzindari izan dela esan daiteke. Hala, orain, urte hauetan guztietan lantegia euskalduntzeko enpresak eta langileek egin duten lana saritu du Foru Aldundiak.

Egun, 250 langile inguru ditu enpresak, gehienak Antzuolako lau lantegietan (Mexikon ere badu beste lantegi bat), eta gehienek dakite euskaraz. Ez da %10era iristen euskaraz ez dakitenen kopurua. Lantegi barruko hartu-eman guztiak euskaraz egiten dira, baina euskara ulertzen ez dutenak baztertu gabe. Esaterako, enpresako batzar orokorrak euskara hutsean egiten dira; baina, gerturatutakoen artean euskaraz ez dakienek bat badago, berehalako itzulpen zerbitzua eskaintzen zaio.



Elay taldea aitzindari da enpresa euskalduntzen.

Lantegiko errotulazioak ere euskara hutsean daude.

ANTON ABBADIA SARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak Anton Abbadia saria sortu zuen 1996an. Euskararen normalizazioaren aldeko lanetan nabarmendutako pertsona

edo elkartearen jarduna saritzeko jaio zen Abbadia saria.

Saria emateko kontuan hartu dira lan edo jardueraren kalitatea eta esanahia eta euskararen normalizazioari egindako ekarpenak. Gainera, saria ematerakoan gogoan izan da pertsona edo elkartearen orain arteko ibilbidea eta jarraitasuna.

GOIENKARIA

DEBAGOIENEAN LABUR

Debagoieneko zerbitzu turistikoaren gida berria kaleratu du Mankomunitateak

Debagoieneko Mankomunitateak ibarreko zerbitzu turistikoaren gida berria kaleratu du. Bertan, bailarako ostatuaren, jateetxeen, museo- en eta oro har zerbitzu turistikoaren berri ematen da, baita beste zenbait informazio baliagarri ere. Gida Debagoieneko turismo bulegoetan eta udaletan eskuratu ahal izango da, baita ostatuaren, jate- txeetan eta museoetan ere. Bestalde, Arrasaten dagoen Debagoieneko Turismo Ekintzetarako Zentrora ere joan daiteke aleren bat nahi duenak, edo turismo@debagoiena.net helbidera e-posta bat bidali. Gidaren bidez ez ezik, hainbat azokatan parte hartuz ere hedatu du ibarreko turismoa Mankomunitateak.

Hedabide webgunerik onenaren aurten Buber saria jaso du 'Euskonews'-ek


Internet&Euskadi elkarteak euskal webgune onenei Buber sariak banatu zizkien joan zen eguaztenean Bilboko Euskalduna jauregian. AupaAthletic.com webguneak jaso zuen euskal webgunerik onenaren saria. Bestalde, Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews* guneak jaso zuen hedabide webgunerik onenaren saria. Goienak kudeatzen duen *Sustatu* ataria ere finalistaren artean zegoen Interneten euskararen garapeneren alde egin duen lanarengatik, baina atal honetan *Bizkaie* webguneak irabazi zuen.

Lastertasun Handiko Trenaren aurkako manifestaziorako dei egin dute

Bistaratu ez den ilargia izenburupean hainbat gizarte eragilek eta taldek Lastertasun Handiko Trenaren aurkako manifestua sinatu dute eta, bide batez, abenduaren 8an Durangon egingo den manifestaziorako dei egin ere. Hauen artean dira Arrasateko Txatxilipurdi eta AED elkarteak eta Antxon Mendizabal. Idatzian diotenez, honelako egitasmoak "garapen ekonomiko mugagabearen ideian oinarritzen dira, baina ustezko garapen hori geroz eta muga agerikoagoak dituen ekosistema baten gainean eraiki gura dute".

Teknologia berriak herritarren esku

Eusko Jaurlaritzak, Debagoieneko Mankomunitateak eta Debegeak lankidetzan hitzarmena sinatu dute. Horri esker, *Deba digitala* proiektuak 400.000 euroko dirulaguntza jasoko du. Hitzarmen ekitaldian Josu Jon Imaz, Ignacio Lakuntza eta Alberto Sodupe izan ziren. *Deba digitala* proiektuaren helburua, hain zuzen, Informazio Gizarteak herritarrengan duen eragina frogatzea da. Hau da, teknologia berriak eta Internet herritarren eta enpresen esku jartzea. /I.A.



D I S E I N U
G R A F I K O A
I N P R E S I O
D I G I T A L A

KOH · 943767320
BARRENKALE 42
20570 Bergara

koh@kohdiseinua.com
www.kohdiseinua.com

Bilduko al dizugu OPARItarako?

Eguberri hauetan, oparitu itzazu bidaiak. Zatoz Eroski Bidaiak zure bulegora, eskatu bidaiak-opari gure katalogoa eta aukeratu ezazu bat: gure kutxatila berezi berrian bilduko dizugu.

eskaintza gehiago www.viajeseroski.es

Viajes Eroski
Bidaiak

Grupo Eroski

Kalitatea Bermatuta



BERGARA

Gutxienez bost hilabetez egongo da itxita Antzuolarako GI-632 errepidea

Aurreko eguaztena ezkerre itxita dago berriz ere GI-632 errepidea, Bergara eta Antzuola lotzen dituen, alegia. Bidea itxteaz bat, Urteaga 29ko bost familiak etxetik irtenarazi zituzten egun berean. Izan ere, Eskusarte harrobia dagoen mendian lerradurak gertatu dira eta, segurtasuna bermatzeko, erabaki horiek hartu ditu Aldundiak. Gutxienez, bost hilabetez egongo da itxita bide hori, eta, hala, Udala alokairuan hartzeko etxe bila dabil familiok kokatzeko. Mendiari eusteko proiektua egiten dihardu Aldundiak. /M.B.



GORKA MORRAS

ARRASATE

Euskal Herrian Euskaraz taldeak erasoak salatu ditu

Euskararengatik lanean dabiltzan herri-mugimenduen aurkako erasoak salatu ditu EHEk. EHEko kideen esanetan, erasoak ez datoz Madrildik bakarrik. Izan ere, AEKren, *Egunkaria*-ren eta UEMAREN kontrako erasoak Madrildik datozen arren, EHEk salatu du hemengo agintariak onartu egiten dituztela erasoak; eta, hemengo ustetan euskararen normalizazio prozesuak goia jo duela eta ez direla konturatzen egiteko asko dagoela. Era berean, hemengo agintariak zuzenean egiten dituzten erasoak ere salatu zituzten, hala nola, Bergarako epaitegiaren aurrean egindako kale bilkuraren ostean ertzainek egindako identifikazioak eta, gero, parte hartu zuten zazpiti 300 euroko isuna iritsi zaiela. Antzerako gehiago aipatu ostean, isunei aurre egiteko ekimenak iragarri zituzten. /U.M.

ANTZUOLA

Gaur piztuko dituzte aurreko egunotan jarritako Gabonetako argiak

Pasa den astean hasi ziren Gabonetako argiak jartzen herrian. Gaur piztuko dituzte lehenengoz, eta hala egingo dute datozen egunetan, 2004ko urtarrilaren 6a arte. Aurten, Udalaren helburua argiak herri osoan jartzea izan da, eta ez herrigunean bakarrik. Hala, herriko 22 kale-argitan izar itxurako argiak jarri dituzte.

Aurreko urteotan baino diru gehiago erabili du Udalak Gabonetako apainketa egiteko. Argien alokairuan 4.000 euro gastatu ditu, eta muntaketa lanetan 2.000 euro. /E.I.

ARAMAIO

Oletako abadetxea herritarrena dela erabaki du epaitegiak

Oletako abadetxea dela-eta, ika-mika sortu zen orain dela urte batzuk Arabako Gotzaindegiaren eta oletarren artean. 1747an eraiki zuten etxea, ardoari ezarritako zergaren bitartez. Baina etxe hartan aspaldian ez zen inor bizi eta oletarrek erabiltzen zuten, auzoaren beharrendako. Halako batean, etxean egin beharreko konponketa batzuek eraginda, Gotzaindegiak epaitegiatar jo zuen. Orain, epaitegiak zera erabaki du: Oletako abadetxea oletarrena dela eta ez Gotzaindegiarena. /U.M.

OÑATI

Aloña Mendiren eski sailak hainbat irteera antolatu ditu negurako

Aloña Mendiren eski sailak hainbat irteera antolatu ditu negu honetan eskia-tzera joateko. Hauxe da Aloña Mendiren eski sailak negu honetarako antolatu dituen irteeren zerrenda. Baqueirara, urtarrilaren 16an, 17an eta 18an eta otsailaren 6an, 7an eta 8an. Luz Ardidenara, otsailaren 13an, 14an eta 15ean. Formigalera, martxoaren 12an, 13an eta 14an. Andorrara, martxoaren 18an, 19an, 20an eta 21ean. Eta Alpeetara (Cervinia), apirilaren 10etik 17ra.

Irteerretarako izena emateko Aloña Mendi tabernara joan behar da, martitzenetan edo eguaztenetan, 19:00etatik 21:00etara. Plaza mugatuak dira eta eski saileko arduradunek izena garaiz ematea gomendatzen dute, irteera baino 15 egun lehenago bai, behintzat.

Bestalde, aurten ere Astun, Candanchu eta Formigalako forfaiak Oñatin bertan erosteko aukera izango da, eski estazioetan

baino merkeago. Mendizabal kirol dendan erosi ahal izango dira txartelak. Prezioak honako hauek dira: Astunen, 26 euro (gazteendako, 21); Candanchun, 25 euro (gazteendako, 20); Formigalen, 25 euro (gazteendako, 20).

BIDEGORRIEN ALDE

Bestalde, Oñatin bizikletan ibiltzeko bidegorriak eskatzen diharduen taldeak batzar baterako dei egin die herritarrei. Martitzenean, hilak 9, kultura etxean izango da batzarra. Besteak beste, orain arteko ekimenen berri emango dute batzarrean. /ENEKO AZKARATE

Zertzelada

Astun, Candanchu eta Formigal eski estazioetarako forfaiak merkeago eskura daitezke aurten ere Mendizabal kirol dendan.

ELGETA

Izarreko eta Uberako bihurguneak 2004an konponduko dituzte

Joan zen eguaztenean, Bide Azpiegituretako Gipuzkoako ahaldu nagusi Javier Zuriarrain eta Garraio zuzendari Josu Agirrezabalaga elgetan izan ziren.

Lehenengo, Gipuzkoako errepideen egoerei buruz hitz egin zuen Zuriarrainek eta gero, Agirrezabalak ibarreko eta Elgetako bideez.

BIHURGUNEAK ETA SAIHESBIDEA

Besteak beste, aurreratu zuten errepideak hobetzen saiatuko direla.

Bertaratutakoei jakinarazi zieten Izarreko eta Uberako bihurguneak 2004an konponduko dituztela. Elgetako saihebidearren lehen faseko lanak 2005erako hasiko dituztela esan zuten. /I.A.



I.A.

Garraio Saileko ahaldua eta zuzendaria Elgetako alkatearekin.

ARETXABALETA

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko muga berrikusteko taldea osatu dute

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko mugarriak berrikusteko asmoarekin batzordea osatu zuen Udalak joan zen asteko osoko bilkuran. Batzorde horretan Arritxu Oliden alkatea, Jose Anjel Antxia eta Xabier Sarasua zinegotziak, Aitziber Mendigain hirigintza teknikaria eta Xabier Mendizabal idazkaria izango dira.

Herri bien arteko mugarriak berrikusteko asmoa joan zen agintalditik dator. Foru Aldundiak eskatuta osatu dute, orain, batzordea, eta Eskoriatzan beste horrenbeste egin beharko dute. /M.A.

ESKORIATZA

Udal aurrekontua egiteko sistema aldatu gura du Eskoriatzako Udalak

Udal aurrekontua aurkezteko garaia heldu da, eta aurrekontu hori egiteko sistema aldatu gura du Eskoriatzako Udalak. Arlo bakoitzak bere aurrekontua zehaztu beharko du, eta aurrekontu osoa izan dadin gura du Udalak: ekitaldiak, eraikinen mantentze-lanak eta gainerako gastu guztiak.

Beste aldaketa bat ere proposatu du: aurkeztutako proiektua urtebete baino luzeagorako bada, lau urterako onartzea aurrekontua. Juan Karlos Bengoa alkateak, gainera, arlo bakoitzeko buruekin adostu gura ditu aurrekontuok. /M.A.

LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Pilota Txapelketa jokatu dute asteburuan

Abenduaren 6an eta 7an jokatu dute Gatzagako Pilota Txapelketa. Zapatuan, 17:00etan hasita, kanporaketa partiduak jokatu dituzte eta domekan, finalaurrekoa eta finala. Finalaurrekoa hasi aurretik, baina, herriko pilotari gaztetxoan partidua egongo da: Lur Uribeetxebarria eta Aitor Antuñano Aretxabaletoako bikote baten kontra.

Azken sei urteotan antolatu dute Pilota Txapelketa Gatzagan, eta aurten hamar bikote hartuko dute parte. /M.A.

Ikerkuntzako Euskadi saria eman diote Jesus Mari Ugalde bergararrari. Fisika, kimika eta materialen zientzia alorretan jorratu du bere ikerketa lana. Epaimahaiak bere lanaren kalitate zientifikoa, nazioartean duen onospena eta egindako ikerketek gizartearendako duten interesa azpimarratu ditu. Donostiako Kimika Fakultatek sariaz eta bere lanaz egin digu berba Jesus Marik.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Pedro Migel Etxenik zure lanerako gogoia, ezagutza, inteligentzia eta zientziari buruzko nazioarteko ikuskera goraiatu zituen. Baina, nor da Jesus Mari Ugalde?

Bergarako semea naiz, gaur egun kimikaren alorrean diharduena. Eskola Elementalean egin nituen ikasketak. Ofizialtza bertan amaitu eta Elektrizitatea egin nuen. Beka batekin Eibarko Unibertsitate Laboralean bi urte eginda Valladolideko Unibertsitatean Kimika ikasi nuen eta baita Fisikako hainbat kurso ere. Handik Kanadara joanda doktoretza ikasketak egin nituen eta baita titulua eskuratu ere. Gero, Estatu Batuetan, Kanadan bertan, Belgikan... doktoretza osteko ikasketak egin ditut. Orain EHUko Kimika Fakultatean naiz irakasle eta hemen gauzatu ahal izan dut ikerketarako gogoia, hemen horretarako aukera baitago.

Ikerkuntzako Euskadi saria eman dizute. Nolako garrantzia du sari honek zuretzat?

Oso handia. Nire herriak ematen duen saririk garrantzitsuena da dudarik gabe, eta niri hori ematea niretzat izan litekeen gauzarik handiena da, profesionalki bai gutxienez. Gailurra jo ez badut ere hortik oso gertu nagoela iruditzen zait.

Fisikaren eta kimikaren arteko mugak ikertu dituzu batez ere, ezta?

Hori da, hain zuzen ere, nire lan esparrua, Fisika Kimikoko katedraduna naiz eta. Horretarako zaletasuna aspaldi piztu zitzaidan. Kimika karrera ikasi banuen ere, Fisikako kurso asko egin nituen karrera ez amaitu arren. Kimika Fisikoa kimikan oso hedatuta dagoen diziplina da. Guk Kimika Teorikoa egiten dugu. Gure aitak esaten duen bezala, probarik gabea. Tradizionalek bezala probarik egiten ez dudanez, ez du horren ziur ni kimikoa naizenik. Eredu fisiko-matematikoak baliatuz, ordenagailuarekin hainbat prozesu kimikoa ikertzen ditugu. Kimikari esperimentalistek errektiboak eta produktuak ikusten dituzte, baina bitartekorik ez; beraz, ez dakite zer dagoen batetik bestera. Guk jakin behar dugu zein diren errektiboak, zein propietate dituzten, errektzioa nola doan eta azkenik, zein produktu aterako diren eta produktu hauek zein propietate dituzten.

Euskal Herria zein mailatan dago ikerkuntza arloan?

Ikerkuntza alorrean bi maila ezberdindu beharko lirakeke. Bata, ikerketa teknologikoa da, hau da, teknologia zentroetan egiten dena eta enpresatik oso gertu dagoena. Ni horretan ez naiz hain aditua baina itxuraz maila onean dago, enpresek estimatzen dutelako horrelako zentronen lana. Bestetik, gure lana dago,



ARGAZKI PRESS

Jesus Mari Ugalde

IKERKUNTZAKO EUSKADI SARIA

“Ikerketarako merezi duten ideiak eta gogoia dituenak lortzen du finantzaketa”

IKERKETA EUSKAL HERRIAN

“Euskal Herrian ikerketa teknologikoa maila onean dago, enpresek estimatzen dutelako. Oinarrizko zientzian, aldiz, nahiko kamuts gabilta, jende gutxi baitago”

HIZKUNTZA

“Ikerketa taldean euskaraz baino ez dugu hitz egiten, baina publikatzeko orduan dena ingelesez izaten da, ingelesa delako zientziaren gaineko berri emateko hizkuntza munduan”

oinarrizko zientzia, eta horretan nahiko kamuts gabiltzala esango nuke. Oraindik jende gutxi dago sartuta mota honetako ikerkuntzan, eta gehiago beharko litzateke, kontuan hartuta unibertsitateak duen potentzialitatea. Eta badago zertxobait gehiago egiteko modua. Oro har unibertsitateetan, bai Euskal Herriko Unibertsitatean, baita Mondragon Unibertsitatean eta Deustuan ere 4.000 irakasle gaudete eta horietatik 500 gabilta ikerketan.

Irakaslea zaren aldetik, unibertsitatek honen aurrean zein jarrera hartu beharko luketela uste duzu?

Unibertsitate nahiko gaztea da eta tradizioa sortzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztaba; beraz, denboraren joanean eta gehixeago eginez gauzak lortuko ditugula uste dut. Eusko Jaurlaritzak orain arte izan duen jarrerari eutsi behar lioke. Hau da, oinarrizko ikerkuntzari hasieratik eta etenik gabe laguntza ematea. Baina Madril-

go Gobernuak ez du ikerkuntza eta teknologiaren transferentzia askatu nahi. Transferentziak gauza abstraktua badirudi ere, azken baten dirua da, diru asko, gainera. Eta guk diru hori behar dugu. Diru hori hemendik gestionatuko balitz, kudeaketa gertukoagoa izango litzatekeelako. Horrenbestez, transferentzia hori behar-beharrezkoa da.

Diru kontuak aipatu dituzu, eta ikeritzaileek askotan hitz egiten dute finantzaketa arazoei buruz. Zuen egoera zein da?

Egoera ez da desesperatzeko modukoa ere. Estu xamar ibiltzen gara normalean, baina gaizki ere ez. Zerbait egiteko ideia eta gogoia dituenak horretarako modua ere badu. Lehendakariak sarritan esaten du finantzaketa merezi duten ideiek lortzen dutela dirulaguntza. Hala ere, gehiago behar dugu. Unibertsitatean ez ditugu irakasleak bakarrik behar, baita ikerketan jardungo duen jendea ere, eta hori diru kostu handia da.

Zuk esana da zientzia arloko ikerketak euskaraz egin arren gero ingelesez argitaratu behar direla.

Nire ikerketa taldean denak gara euskaldunak, baina gaztelaraz eta ingelesez ere jakin behar dute. Gure artean euskaraz baino ez dugu hitz egiten, baina gero, publikatu dena ingelesez egiten da, baita tesiak ere. Munduan, maila unibertsitarioan, ingelesa da zientziaren gainean komunikatzeko hizkuntza nagusia. Gustuko izan edo ez, ganoraz argitaratu nahi badira lanak ingelesez egin behar da.

Ikerketa arloan zuk egindako lana saritu dute. Orain zein lan duzue esku artean?

Lehen baino molekula handiagoekin ari gara lanean. Orain interes handia dugu cluster kimikoetan, zink-oxigeno, zink-sufre, cadmio, seluro eta antzeko elementuen clusterretan, hain zuzen. Nano-estruturak ez izan arren hauetatik oso gertu daude. Hauen egitura, oreka, ezauzgarri optikoak... ikertzen ditugu. Nanoteknologiak, besteak beste, material horietan du oinarria, baina teknologia hori oraindik garatze bidean dago.

Bestalde, sistema biologikoekiko interesa ere badugu. Eta batez ere aluminioaren toxikotasuna aztertzen dugu. Hau da, zergatik den aluminioa toxikoa gizakietan eta baita beste zenbait organo bizidunetan ere.

Bestalde, aspalditik dihardugu katalisia ikertzen eta oraindik ez dugu alboratu gai hau. Trantsizio metalen katalisiaz ari naiz. Hauek kobretik hasi eta eskandiora arteko metalak dira. Hauek errektzioak nola bizkortzen dituzten ikertzen dugu. Metanoa, esaterako, oso gas inportantea da. Zierbenara gas likidoa ekartzen dute. Metanoak garraiatzeko duen arazoa hori da, hain zuzen ere, gasa izanik oso presio handietan ipini behar dela likido bihurtzeko. Badira beste metodo batzuk metanoa likidoa den beste hainbat gauzatan eraldatzeko. Edozein drogeriatan aurkituko genukeen metanola (erretzeko alkohola) izango balitz, garraiatzeko askoz errazagoa izango litzateke. Gure lanak duen aplikazio praktikoetako bat baino ez da hau, ikusgarrietakoa agian.

Plastikoen sintesia ere lantzen dugu, mekanismoak nola gauzatzen diren jakiteko, plastikoak nola egiten diren ikusi nahi dugulako, alegia.

Azkenik, gure teoria fisiko-matematikoak depuratzeko ere jarduten dugu, oso interesatuta baikaude elektroien elkar ekintza sistema molekularretan nola gauzatzen den jakiten. Hori oso problema zaila da, baina era berean gehien gustatzen zaidan alorra ere bada.

Ikusten duzuen bezala, lan faltarik ez dago ikerketa kimikoari dagokionez.

Zabalik

MIGUEL ANGEL
ELKOROBEREZIBAR

Kalitateaz

Izenburu bereko zutabea idatzi zuen joan den igandean Arantxa Iturbek *Berria*-n; kalitatearekin kokoteraino zegoela adierazten zuen eta lantokira joan zitzaizkien gorbatadunen azalpenek ez zutela batere konbentzitu.

Batzuen esanetan, gure lantokietako Kalitatea kudeatzean datza azken hamarkadako erlijio nagusia. Gurutzeen orde, urrezko eta zilarrezko Q-ak ageri zaizkigu Gipuzkoako 22 enpresatan, eta beste mila inguru dira ISO ziurtagiri ezberdinen jabe.

Baina Kalitatearen mezua zabaltzen ari diren misiolariak ez ei dute sarritan asmatzen ikasgaia behar bezala azaltzen. Aspaldi esan zuen hark: askara zaldia eraman dezakezu, baina egarririk ez badauka ez duzu bertatik edan dezan lortuko. Erakarri egin behar zaio, eskain diezaiogun ur freskoagoa, aldatzeko nahia piztuz, betiere talde-lanean eta hobekuntzarako prest. Baina horrek denon ahalegin berezi bat eskatzen du, geure ikuspegia eta egunerokotasuna zeharo aldatzeraino.

Joan den udan, Kalitatearen alorrean mundu mailako adituei entzuteko aukera izan nuen Euskaldunan; bat zetozen etorkizunean enpresak "langileetan" baino gehiago "pertonetan" oinarrituko direla aurreikustean, garrantzitsuena beraien zorientasuna izanik.

Ikuskizun dago, baina begi-bistakoa da horretarako barne-komunikazioa hobetu beharra daukagula, mezu egokia helaraziz, lan egiteko era berri hori benetan onuragarria baita. Kalitatearena ez da iritsi beharreko geltoki bat, bidaiatzeko modu eraginkor bat baizik.

Ez dezagun, beraz, bidaia gurutze-bide bihurtu eta ulergarri bezain erabilgarri egin dezagun, azken finean edan gabe ez baitago luzaroan irauterik.

Gutunak

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefona: 943 76 92 71
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: goienkaria@goiena.com



Alkate-jauntxoa

Bergara Aurrera herri plataformako Udal taldeko zinegotziok aurreko astelehen arratsalderako plenoa zegoela iragarrita plazako arkupetan irakurri ondoren, Victoriano Gallastegi alkatearengana jo genuen plenoan guk aurkeztutako bi mozio aztertzea eskatzera. Izan ere, Victorianoren estilo ilunari jarraituz, BAK aurkeztutako bi mozioak (militarren manio-brak salatzeke eta bi bergararrek Jabi Lazkano bisitatzera zihoazenean Madrilen izandako istripua salatzeke) alkate jaunaren edo jauntxoaren kajoian zeuden usteltzen. Victorianoren erantzuna izan zen bi gai horiek ez zituela tratatuko Bergarako Udala askotan posizionatu delako gai horien inguruan eta mozio horiek tratatzea "pentsatuko" zuela esan zigun. Hurrengo goizean, ostirala, orain arte egin dugun moduan alkate-jauntxoak horrela agintzen duelako, idatziz eskaera egin genuen ohiko plenoan azkeneko puntua den erreku eta galdere-tan hitza edukitzeko, hainbat gairen inguruan (Txosna Batzordeari jarritako isunari buruz, Udal Langileek *Berria*-ri eskaini nahi dioten dirulaguntzari buruz, BAK sartutako mozioen inguruan...) galderak egiteko eta gure iritzia emateko, hori baita alkate-jauntxoak eta bere gobernuak eskaintzen ziguten aukera bakarra.

Gauzak horrela, astelehen honetan Udal plenora joan ginen eta PNV-EA, Aralar, PSOE, PP eta EBko zinegotziak demokrazia espainiarrak eskaintzen dien patentearekin dagozkien aukietan eseri ziren bitartean, gu orain arte pleno guztietan gertatu den bezala ikusleei dagokien eserleketan jarri ginen. Plenoa hasi eta beti bezala alkate-jauntxoaren eta bere gobernu batzordeko kideen "laguntzari" esker tratatu behar ziren gaien zerrenda eta euren buruzko informazio barik hasi zen plenoa.

Victorianoren estilo demokratikoari jarraituz, gaiak bi minututan bentilatu zituen inongo eztabaida barik. Erreku eta galderetara heldu ginenean Alkate-jauntxoak Bergara Aurrerak hitz egiteko aurkeztutako eskaerak ez zuela balio adierazi zuen, eskaera ez zegoelako pertsona fisiko baten ize-nean eginda. Alkate-jauntxoak idatzian BAKo zinegotzien sinadurak ikusi beharrean, "lau zirriborro ikusi zituen" eta ondorioz berak ez zekiela eskaera noren ize-nean zegoen eginda. Benetan aurpegi gogorra behar da hori esateko bere muturren aurrean BAKo zinegotziok eserita geundenean. Guk hitza eskatu genion alkate-jauntxoari baina honek ukatu egin zigun eta jauntxo batek agintzen duen moduan bere taldekideei jaikitzeke eta alde egiteko agindu zien, guztion harridurarako. Honen aurrean argigarria gertatu zen Aralar alkate-jauntxoaren gobernu kideen, EBren, PSOE eta PPren jarrera hau da isiltasuna eta jauntxoak agindutakoa txintik esan gabe bete.

Honen guztiaren aurrean BAKo Udal taldeko zinegotziok garbi laga nahi diogu alkate-jauntxoari maiatzeko hauteskundeetan Bergarako bigarren indar politikoa Bergara Aurrera izan dela eta guk ordezkatzeko ditugun bergararrek ematen digutela hitza eta legitimitatea Bergarako Udalean lan egiteko. Ardura horri orain arte bezala helduko diogu eta ez Madrileko faxistek eta ezta ere Alkate-jauntxoaren jarre-ek ez digutela hori galaraziko.

PD: Hau guztia egia dela norbaitek zalantzarik baldin badu Udaleko plenoetara joatea besterik ez dauka jauntxo-alkate bat zer den gertutik ikusteko. Ohiko plenoak hileko azken astelehenetan izaten dira iluntzeko 19:30ean eta alkate-jauntxoak kontrakorik ez badu erabakitzen bertara edozein bergarar joan daiteke.

BERGARA AURRERAKO UDAL TALDEA:
JESUS MARI GARITANO, MILA ELORTZA,
MIKEL EGUREN ETA MAITE GURIDI
Bergara

Sakabanaketak hil egiten du!

Joan zen asteburuan, zorigaitzoko beste auto istripu bat izan dela-eta, Sara Fernández iruindarra hilik suertatu da Valde-

moroko espetxera bisitan zihoala, eta Izaskun Urkijo gasteiztarra larriki zauriturik dago. Lehenik eta behin, Arrasateko Etxeratik gure doluminak adierazi nahi diegu Sararen senide eta lagunei eta Izaskun lehenbailehen etxean izatea desio dugu!

Astero-astero, izugarritzko gastu ekonomikoari aurre egin behar izateaz gain, gure bizia arriskuan jartzen dugu, milaka km. egin beharra dugulako gure senide eta lagun presoak ikusteko. 1987. urtean hasi zuten dispertsio politika, gaur egun mendeku politika baino ez dela adierazi beharrean gaude. Mina besterik sortzen ez duen egoera honekin amaitzea eskatu nahi diegu Herri honetako alderdi politiko, eragile eta herritar orori. Bere unean, egoera honi horren errez hasiera eman zioten alderdi politiko denek amaiera eman diezaioten exijitzen diegu; eta batez ere, orduan PNVk izandako arduragatik beraiengana zuzendu beharrean gaude; euskal presoen eskubideak zapaltzen diren bitartean, gureak ere, bertan behera geratzen direlako. Jada, 13 pertsonak galdu dute bizia espetxerako bidaietan eta ehunka istripu egon dira, aurten soilik, 3 hildako eta 23 istripu larri izan direlarik. Euskal Herriak pairatzen duen gatazkari amaiera emateko, ezinbestekoa da euskal preso politikokak hemen izatea.

Besterik gabe, hil honen 13an, Etxeratik Iruñerako deitu duen manifestaziora joan zaitezten deialdia luzatzen dizuegu, dispertsioarekin amaitzea guztion ardura delako. Euskal presoak Euskal Herrira!

ARRASATEKO ETXERAT
Arrasate


Hildako prebentiboak

Albacete non dagoen zehazki ez jakitea Agatik izango da ipurdia gori-gorian dugula. Autobus batean orduak eta orduak igarotzeko eroso jartzen ez dakigulako izango da minduta daukagula gorputz osoa. Aurretik espetxe batera sartu ez izanagatik izango da oraindik zirrarak jota gaudela.

Albaceten espetxeratuta dagoen lagun bat bisitatu genuen. Leher eginda, baina heldu ginen. Kristalaren bitartez ikusi genuen elkar, baina elkar sentitu ginen. Zulo baten bitartez elkarri oihu egin genion, baina elkarri entzun genion.

Olatz eta Patri

MIKEL ARROIABE



Txus, zure onginahia, barreak, lagunendako interesa eta zure barruan daukazun gertutasuna heldu zitzaizkigun. Gogorra da gure artean izatea eta etxera bi bakarrik bueltatzea.

Gau urduri baten ondoren, hurrengo egunean egunkariaren eta ogiaren bila jo dut. Auzoa ikusten duzu, eurari ez diozu jaramonik egiten, zure burua eta bihotza hemendik oso urrun daude, eta mailukada titularretatik dator kizu. Preso politiko baten laguna betirako errepidean gelditu zen, beste lagun bat larri...

Dardara, hutsunea, amorrua..., eta hamaikagarren aldiz jakin duzu: 700 preso politiko 86 espetxetan; lagunak eta senideek astero 800.000 kilometro egiten dituzte; gutxi gorabehera, 2.700 senidek eta lagunak astebururo bidaiak egiten dituzte; 14 senide eta lagun hilda bisita egin guran. Ez gaitetzela inoiz ohitu!

DIRK MORENWEISER
Arrasate

Euskeriaren eguna

Euskerian naziñarteko eguna ospatu da eguaztenian munduko txoko guztietan. Bai, munduko txoko guztietan! euskaldunok kontinente guztietan banaturik garelako. Eta euskeria gutxien espero dogun munduko txokuetan entzun leikelako.

Lehenengo euskerian eguna 1949xan ospatu zan, gaur bezelako egun batez. Die-la urte asko eta asko. Jai hau Euskal Herrixan eta atzerrixan be ospatzen da, kanpua daren euskaldunak be jai bereziren bat egingo dabe euren lurraldian: Argentinan, Uruguain, Venezuelan, Ingalaterran, Italian...toki askotan.

Jarri zaittezte momentu baten pentsatzen: badakizue zuen moduko zenbat gazte, eta ez hain gazte, egongo dien momentu hontan jai hontaz gozatzen? Ba mordoxka bat die! Askok die jai hau euskeraz ospatzen dihardutenak! Askok euskeria pozik ikasi dabena! Eta askok euskeraz bizi diena!

Hortaz, oinguan euskeriak batu gaitu, euskerian inddarrak batu ditxu itsasoz bestaldeko euskaldunak eta Euskal Herrikuak. Beste barrik! Jai egunak hasi die; jolastu euskeraz, bizi euskeraz, ligau euskeraz, ikasi euskeraz eta lan egin euskerian alde. Eztarrixak apurto arte abestu eta berba egin!

ARANZADI IKASTOLAKO IKASLEAK
Bergara

Konstituzio Espainolaren eguna

Bueltak eta bueltak eman arren, ez dut Buste abenduaren 6an euskaldunak ezer ospatzeko daukagunik. Hala ere, urte urte ospatu beharrean aurkitzen gara azken 25 urteotan: 25 urte inposaketaren mendean; 25 urte errepresioa jasaten; 25 urte gure herria okupatzen.

25 urte gure hizkuntza, gure kultura, gure ohiturak, gure aberriaren izaera sozio kulturala ulertzeko eta sentitzeko era zapaltzen.

Euskaldunak eta abertzaleak garelako eta izaten jarraitu nahi dugulako, abenduaren 6an ez daukagu zer ospaturik, ez delako gure jai. Nik, egun horretan, nire denda zabalduko dut, intsumisioarekin erantzunez jai egun hori, eta gure jai egun propioa lortu arte lan egingo dut. Gora Euskadi askatuta!

EUKENE GRACIA
Bergara

Bistaratu ez duten ilargia

Neil Armstrong eta Edwin Aldrin izan ei ziren, 1969an, ilargia zapaldu zuten lehen pertsonak, Michael Collins Apolo XI.lean zain zeukatela, satelitearen orbitan. Harrezkero, pertsonok sobera eza-gun omen dugu satelite hori. Haatik, geroz eta gehiago dira azken boladan beste moduzko ilargi bat seinalatzen ari diren atzamarrak; atzamarrak salatzen dutenaren arabera, kezkatzeko moduko fenomenoak ari dira gertatzen beste moduzko ilargi horretan. Fenomeno horien sintomak geroz eta agerikoagoak omen dira. Nazioarteko Gurutze Berdea izeneko erakundeak, berbarako, sintoma horietariko batzuk izendatzen hasita, honako hauek aipatu ditu oraintsu: lurraren berotze globala geroz eta nabarmenagoa dela, geroz eta bazter gehiago ari direla basamortu bihurtzen, baso-soilketa prozesua larritzeko modukoa dela eta edateko moduko urik ez daukaten lagunak 1.200 milioi direla jada. Horiek horrela, erakunde horren iritzi ezinbestekoa da jendearen kontzientzian aldaketa bizkor eta errotikoa sustatzea; pentsamolde berriaren premia ei dago, etekin ekonomiko itsuaren bilaketan baino justizian eta berdintasunean oinarrituko den pentsamoldearen premia.

Lehen aipaturiko atzamarrek seinalatzen duten beste moduzko ilargi horren ezaugarri nagusia, bistan denez, gaur egungo garapen-ereduaren krisia da. Askok dira, ordea, atzamarrek seinalatzen dutenari erreparatu beharrean, atzamarrei eurei begira geratzen direnak, orain arteko sintoma guztiak gutxietsita. Horiek —dela Jaurilaritza, dela Espainiako Gobernuak, dela enpresaburuaren elkarrekin, dela ikerkuntzari baino lobby boteretsuen presioari jaramon gehiago egiten dion talde akademiko zenbait—, horiek, ari ginen esaten, abiadura, dirua, aurrerabidea eta gisako berba totemikoekin eraikiko dizute euren erantzuna, baldin eta oraindik bistaratu ez duten ilargi horren konturik aipatuz gero.

Badago nonbait pertsonengan mudagaitza den zerbait, ilargiari beharrean atzamarrari begiratzearen joera hori ez baita atzo goizekoa. XIX. mendearen bigarren erdian, esate baterako, arrain-harrapaketak ikaragarri hazi ziren Atlantikoan, lurrin-ontziak itsasoratzen hastearekin batera. Mende amaierarako atzamar bat baino gehiago hasi zen baporeen jarduna salatzen, itsasoa hustu behar zutela argudiatuta. Gehiegizko ustiatze hura bazter utzi eta praktika lasaia goak behar zirela zioten. Orduko gobernu, enpresaburu eta enparauek egungo argudio berberekin erantzun zieten: dirua, abiadura, aurrerabidea, zer ez zuen ekarri jardun berriak. Horrela jarraitu beharra zegoen. Urte batzuk geroago, 1920ko hamarkadan, arrastontzi-kopurua mugatu behar izan zuen Kanadako Gobernuak, derrigorrean; 1992ko uztailan, azkenik, Newfoundland eta San Lorentzoko Golkoko inguruak, behiala agortezin ziruditen haiek, zarratu egin behar izan zituzten: arrainak desagertzen ari ziren.

Hortez datza, hain zuzen ere, batzuek ikusten ez duten (edo, okerrago dena, ikusi gura ez duten) kontraesan nagusia: LHTrena bezalako egitasmoak garapen ekonomiko mugagabearen ideian oinarritzen dira, baina ustezko garapen hori geroz eta muga agerikoagoak dituen ekosistema baten gainean eraiki gura dute. Oraintsu irakurritakoak dira, adibidez, honako hauek: azken hamarkadan %20 karbono dioxido gehiago isuri da EAEn, gutxienean azpitik den Kyotoko Protokoloa betetzeko helburua gero eta urrutiago dago, 1998-2002 bitartean %30 hazi dira hiri hondakinak, eta horiek erraustu eta, ondorioz, gero eta kutsadura gehiago sortzen dugu, trafikoa ikaragarri hazi da eta hori mugatzen saiatu beharrean geroz eta errepide gehiago egiten ditugu...

Kinka honetan, lehendik ere bage-nekiena gogorarazi digu egunotan Euskal Herrian izan den William McDonough adituak: gizakiok ozono geruza zulatu dugu, basoak neurririk gabe ustiatu, itsaso eta ibaiak pozoitu... Lurra galbidera darماغu, baina patua alda dezakegu.

Horrexegatik hain zuzen, elkartuz gero gauzak aldatzeko indarra daukagula sinesten dugulako, Durangon izango gara abenduaren 8an, batzuek oraindik bistaratu ez duten ilargia seinalatzen, atzamar-kopuru handia batzea lortuz gero begi-bistakoa ukatzea zailagoa izango zaielakoan.

IBARREKO ETA IBARRAZ KANPOKO
HAINBAT TALDE ETA GIZABANAKO
Debagoiena

Aramaion baserriar mota berria

Nork? Ez dago argi. Nolako? Ez du animaliarik behar, ez lan tresnarik, ez korta eta ganbararik animaliak eta jeneroa gordetzeko. Nahikoa da terreno zati bat izatea eta bizpahiru animalia dituela ziurtatzea. Ziurtagiria edozein baserriarrek firmatu lezake esanez, buru horiek saldu dizkiola, eta honekin baserriar agiria lortzen du Arabako Foru Aldundian. Zertarako asmakizun hau? Berez etxerik egin ezin den lekuan etxea egiteko. Lau edo bost "Jauntxok" euren kapritxoa lortzeko, besteei eta ingurumenari egiten dioten kalteak inporta barik. Beraiek ondo bizi nahi dute, ingurukoak, bost axola! Kasu askotan gainera jauntxo horiek badute etxea behar den lekuan eraikitze aukera. Hala ere, nahiago dute tranpa egin eta nahi duten lekuan eraikitzea. Horrela, agian, beste lur horiek espekulatzeko ere erabil ditzakete.

Eta Udalak zer? Batzuei lagundu, beste batzuei argibide gutxi eman, baina arau txarrak onartu eta tranpak ere beraiek asmatu, gero legea aplikatzen dutela esan eta eskuak garbitu (edo garbitzen saiatu, ezinezkoa). Bihar edo datorren astean inork baimena eskatzen badu tranpa eginez horrelako bat egiteko, ze erabaki hartuko du Udalbatzak? Noren interesak defendatuko ditu Udalak, jauntxo berrienak? Benetan baserriar denari eta izan nahi duenari gogo kentzeko modukoa da hau!

ENRIKE AXPE ELEJALDE
Aramaio (Azkoaga auzoa)

HURRENGO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: goienkaria@goiena.com

Abizenen idazkera: Euskatzaindiak dioena zorrotz bete behar da?

Goienkaria

DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkorobereibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Irabre Bengoa, Arantzazu Arana

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi



Motozerratan ESKAINITZA BEREZIA!

MODELOA	LEHEN	ORAIN
Husqvarna 340	475,60 €	390,00 €
Husqvarna 350	568,40 €	485,00 €
Husqvarna 359	642,64 €	534,00 €
Husqvarna 365	736,60 €	630,00 €
Husqvarna 372	910,60 €	715,00 €



Erosketa
bakoitzeko
txaleko
bat opari!



Comercial BRUNET

SALMENTA ETA KONPONKETA

Debagoieneko eta Debabarreneko
banatzaile ofiziala:

 **Husqvarna**

Sega-makinak
Motoaitzurak
Belarra mozteko makinak
Sasi-garbitzeko makinak
Ur-ponpak
Argi-sorgailuak


Zatoz, bisita gaitzazu!

Telleria 2, Labegaraieta industrialdea, **BERGARA**. Tel. 943 76 31 52 - Tel./faxa 943 76 70 12



CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura



Jaioaurreko diagnostikoa-ekografia.....	Antonio Estomba
Menopausia	Fernando Cristóbal
Endoskopia ginekologikoa	Alfredo Otalora
Laguntza bidezko ugalketa.....	Jose M. Gómez
	Ainhoa Larrea
Titietako gaixotasunak	Domingo Murgiondo
Obstetrizia.....	Miguel Gabarain
Psikosexualitatea.....	Maria José Ruiz
Nerabezaroko ginekologia	Fatima Azkue
Hezur dentsitometria	J. Rodríguez

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18


Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88

Euskadiko Karate Txapelketa Bergaran

Ivan Galan karateka arrasatearra lehena izan zen kumitean

E.I.

Karateko Euskadiko Txapelketa jokatu zen pasa den domekan Bergaran. Kadete eta junior mailetan lehiatu ziren, eta bi modalitatetan: katan eta kumitean. Domina ugari lortu zituzten debagoiendarrek, baina urrea batek bakarrik, Ivan Galan arrasatearrak.

Karatekek eta kirol honen zaleek hartu zuten pasa den domekan, azaroak 30, Bergarako Labe-garaietako kiroldegia. Junior eta kadete mailetak Euskadiko Txapelketa jokatu zen Bergaran. Karateka debagoiendarrek maila ona erakutsi zuten.

Arrasateko Saioa taldeko lau karateka lehiatu ziren Bergaran eta guztiek lortu zuten dominaren bat. Ivan Galan lehena izan zen junior mailako 65 kilo baino gutxiagokoen kumite proban. Hala, Estatu mailako txapelketa-rako txartela lortu zuen arrasatearrak. Bestalde, katan hirugarren postua lortu zuen berak, eta laugarrena Goizeder Caballerok. Azken hau, gainera, hirugarrena izan zen 75 kilo baino gutxiagokoen kumite proban. Jon Rodriguezek eta Carlos Sanchezek hirugarren lekua eskuratu zuten kumitean, nor bere pisuan.

Begarako Shotokan taldeko Rakel Blanco eta Jon Gonzalez ere hirugarren izan ziren, lehena kata proban eta bigarrena 70 kilo baino gutxiagokoen kumitean.

ANTOLATZAILEAK GUSTURA

Josean Iñarra Begarako Shotokan taldeko entrenatzaile eta Gipuzkoako hautatzailea gustura dago txapelketa Bergaran jokatuko delako. Karatea oraindik ere kirol ezezaguna dela askorendako esan digu berak, baina poliki-poliki zabaltzen doala. Horren erakusle da Euskadiko lizentzia kopuru altua. Karateka euskaldunen maila ere oso ona dela adierazi du Josean Iñarra entrenatzaileak.

Ibarrreko karatekek maila ona erakutsi zuten

Lau arrasatear eta bi bergarrendako dominak



Arrasateko Saioa taldeko karatekak.

OLAIA MONDRAGON



Begarako Shorokan taldeko partaideak Josean Iñarra entrenatzailearekin.

OLAIA MONDRAGON



Kata eta kumite probetan lehiatu ziren domekan karatekak.

OLAIA MONDRAGON

Kirolabur

SARIA/OÑATI

Oñatiko Aloña Mendi Kirol Elkarteak Gipuzkoako kirol talde onenaren saria jasoko du. Sari hori Foru Aldundiak urtero antolatzen duen Gipuzkoako Kirolari Omenaldia ekitaldian emango diote Aloña Mendiri. Abenduaren 22an izango da hori, Donostiako Kursaal jauregian. Urtean zehar nabarmendu diren zenbait kirolari ere omenduko dituzte ekitaldi horretan.

Iñaki Ugarteburu Aldundiko kirol zuzendariak Aloña Mendi "ibarrerako eredu-garria izan dela" adierazi du. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia, Fernando Tapia foru diputatua eta Iñaki Ugarteburu bera izango dira omenaldian. Aloña Mendik berrogeita hamar urte baino gehiagoko historia dauka eta hainbat kirolari zuzenduriko hamalau sailek osatzen dute.

FUTBOLA/DEBAGOIENA

Preferente mailako derbia izango da asteburuan Bergaran. Herriko taldeak Oñatiko Aloña Mendiren aurka jokatuko du. Agorrosinen izango da, arratsaldeko 15:30ean. Aloña Mendi, berriz, sailkapenaren aurreko postuetan da. Pasa den zapatuan Santo Tomas Lizeoari irabazi zion.

Begararrek pasa den astean ere derbia jokatu zuten, baina emaitza ez zen beren aldekoa izan. 4-1 galdu zuten Aretxabaletaren aurka. Aretxabaletak kanpoan jokatuko du asteburu honetan; Tolosako Berazubi zelaian izango dute partidua zapatuan, arratsaldeko 16:30ean. Mondra hirugarrena da sailkapenean, liderra baino puntu bat gutxiagorekin. Josu Zubiaren mutilek asteburuan hiru puntu lortu zituzten Deban, eta, oraingoan, etxean jokatuko dute Berioaren aurka. Partidua zapatuan izango da, 15:30ean.

TXIRRINDULARITZA/OÑATI

Markel Irizar 23 urteko txirrindulari oñatiarrak Euskaltel-Euskadi taldearekin lehen kontzentrazioa izan du aste honetan. Derion egon da Markel taldearekin, astelehenetik egubakoitza arte. Deriora joan aurretik, profesional mailan arituko dela ospatzeko omenaldia egin zioten familiak, lagunek eta zaleek pasa den zapatuan, azaroak 29. Laurogeita zortzi lagun elkartu ziren eta omenaldiarekin batera afaria egin zuten.



Zure haurtxoaren denda.



Arrasateko Maala errebalean gaude. Zatoz!





Irabazi dute

Lagun ugarik erantzun dituzte ondo **Gazte Saltsa** jokoko galderak, eta, beraz, makina bat puntu eskuratu ere bai.

Eta **sailkatutako lehen 1.000 lagunek** CDak eta CD-errepuzitzailea gordetzeko poltsa praktikoa eraman dituzte opari.



Gainera, beren balentria saritzeko asmoz, **lehen 500 sailkatuen artean zozketa bat** egin dugu. Honako hauek dira irabazleak eta lortutako sariak:

Iban Callejo Conde
Donostia



Ordenagailu eramangarria

Maialen Zarra Urdangarin
Donostia



TFT 17" pantaila

Ivan Ayuso Fernandez
Eibar

Maite Juaniz Aycart
Donostia

Oscar Del Hoyo Perez
Donostia



Kamera digitala

Zorionak guzti-guztiori.

Gozatu Gaztekutxarekin. Asko duzu irabazteko.



gazte kutxa

Goienka2a

Egubakoitza / 2003ko abenduren 5a

Kultura
eta
aisialdia



Abenduaren
5etik 12ra




**IKER
BARANDIARAN**

HAMAR ELKARRIZKETA
80ko hamarkadako hainbat pertsona ezagun eta esanguratsu elkarrizketatu ditu Iker Barandiaran arrasatearrak *Putz* aldizkariako. Orain, liburu batean bildu ditu.



**JUAN KARLOS
IRIZAR**

OROITZAPENERAKO BALADAK
Bosgarren disko eta liburua aurkezten ditu Juan Karlos Irizar piano jotzaile oñatiarrak. Bakarlari eta talde ezagunen abestien moldaketak dira.



**JOSEMARI VELEZ
DE MENDIZABAL**

ARAMAIO ETA ARRASATE
Idazle aramaiarraren bi lan egongo dira Durangon: *Aramaio eta Arrasate* eta *Jose Mari Azkarraga Mozo Lurgorri*. Badiharduguren mahaian egongo dira.



**GERARDO
MARKULETA**

**BATAK EZ DU
BESTEA KENTZEN**
Idazle oñatiarraren laugarren poema liburua da; 50 poema biltzen ditu. Horietako batzuek Gandiagaren estiloa jarraitzen dute. Alberdaniak kaleratu du.



**OÑATIKO
TXISTULARIAK**

GIPUZKOAKO DANTZAK
Euskal Dantzarrien Biltzarrak egindako disko honetan, Oñatiko lau txistularik Gorputzi eguneko best dantzak grabatu dituzte. Elkarlanean argitaletxeak kaleratu du diskoa.



**JUAN LUIS
BIKUÑA**

**IRIAUN, FRANTSESEN
URREA ETA ELOSU**
Badihardugu elkarteak eskainiko du Bergarako Udalak argitaratutako liburu hau. Ibarreko beste udalek kaleratutako hainbat lanekin batera egongo da hau.



ANARI ETA PETTI

PIL PIL SESSIONS
Metak diskoetxeak azaroan bildu zituen Anari Arrasaten bizi den kantaria eta Petti. Ezohiko bikote eta kolaborazio horren emaitza da *Pil Pil Sessions* bildumako disko hau.



**SEN ETA
HENDRIK ROEVER**

PIL PIL SESSIONS
Hendrik Roever kantabriarrak Sen taldearen hainbat abesti moldatu ditu disko honetarako. Abesti berriak ere badaude, eta Latzenen *Laztana* kantuaren moldaketa ere bai.



**RUPER
ORDORIKA**

**KANTUOK
JARTZEN DITUT**
Bakarlari oñatiarrak kaleratu berri duen diskoa egongo da azokan. Aldi berean, Ruperrrek kontzertua eskainiko du abenduaren 7an, domeka.



**AED-ELKAR-URTZI
URRUTIKOETXEA**

ZORIRIK EZ
AED Arrasateko euskara elkarteak bultzatutako lana da, Jokin Zaitegi sariketaren bidez. Imre Kertesz 2002ko Nobel saridunaren *Sorstalanság* nobelaren euskarazko itzulpena da.

**Poesiak eta
elkarrizketak,
kolaborazioak
eta disko
berriak...
Debagoienetik**

Debagoiendarrak

Durangón!

EUSKARA/ IBARREKOAK DURANGOKO AZOKAN

Hamabost lan berri Debagoienetik

ELKARRIZKETA BILDUMA BAT, GERARDO MARKULETAREN POEMAK ETA RUPER ORDORIKAREN AZKEN DISKOA, ESKAINTZA NAGUSIAK

LEIRE KORTABARRIA

Hamabost bat argitalpen berri eramango dituzte debagoiendarrok Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokara; kontzertu eta hitzaldiak ere egingo dituzte. Ibarreko idazle, elkarte, argitaletxe eta musikariek gero eta presentzia sendoagoa dute Durangoko azokan.

Aurten, literatura eta argitalpenen arloan izango da ibarreko eskaintzarik ugariena. Oso berrietasun erakargarriekin joan dira Durangora ibarreko hainbat idazle, argitaletxe eta elkarte.

Gerardo Markuleta idazle oñatiarrak azken lana eraman du azokara: *Batak ez du bestea kentzen* poema liburua, Alberdania argitaletxearen eskutik. Markuletaren laugarren poesia liburua da, eta aurrekoak baino "luzea goa eta sendoagoa" dela esan du egileak. Liburuak Joseba Jaka IV. Literatura Beka jaso zuen.

Apokaliftin Kultura Elkarteak bi liburu eskaintzen ditu: Iker Barandiaran kazetari arrasatearraren *Hamar elkarrizketa* eta Txili Lauzirika lekeitiarraren *Euriaren mailukadak* poema liburua. Horrez gain, *Putz* aldizkariaren hainbat zenbaki salduko dituzte.

EUSKARA ELKARTEEN LANAK

Liburu gehien Badihardugu Deba ibarreko euskara elkarteak eraman ditu. Elkarteak Debagoieneko eta Debabarreneko udalek eta egileek prestatutako liburuak eraman ditu; horietatik 40 bat Debagoienekoak dira, berritasun zein berrargitalpenen artean. Liburu berriak hamar bat dira; gehienek herri bakoitzeko histo-



Ibarreko hainbat kultura elkarte egongo dira azokan. Iker Barandiaranek, esaterako (ezkerrean), liburuak aurkeztuko du.

ria, toponimia, euskalkia... lantzen dituzte. Gutxi batzuk aipatzearen, Jose Mari Velez de Mendizabalen *Jose Mari Azkarraga Mozo Lurgorri* eta *Aramaio eta Arrasate* eta Juan Luis Bikuñaren *Iriaun, frantsesen urrea eta Elosu* liburuak egongo dira.

Eta azokan egongo da baita Arrasateko AEDren Jokin Zaitegi sariketaren eskutik burutu den *Zoririk ez* lana ere, Imre Kertesz Nobel saridunaren nobelaren itzulpena. Elkarlanean argitaletxearen proposamena da hau.

MUSIKA ESKAINTZA

Musika kontuetan ere izango dute zeresana debagoiendarrek. Durangoko azokako urteroko eskaintza osatzen duten bi musikari oñatiar egongo dira bertan: Ruper Ordorikak, alde batetik, *Kantuok jartzen ditut* azken diskoa eraman du Durango aldera. Bertako hotsak zuzenean entzuteko aukera izango da, gainera; izan ere, hilaren 7an, domeka, kontzertua eskainiko du kantautore oñatiarrak Durangon, 22:00etan.

Oñatiarraren azken lana Metak diskoetxearen postuan egongo da, eta baita Sen eta Hendrik Roveerren diskoa ere; Sen eta Latzen taldeen abestien moldaketak dira.

Juan Karlos Irizar piano jotzaile oñatiarraren lan berria ere egongo da Azokan: *Oroitzapenerako baladak*.

Era berean, ibarreko jai errotuetariko baten musika eskura izango dugu azokan: hain zuzen ere, Korpusetako doinuak, *Gipuzkoako dantzak* diskoan, Elkarlanean argitaletxearen eskutik.

Aro bateko espiritua

Karlos Agirreurreta *Mahoma* edo egunotan zendu den Tijuana In Blue taldeko abeslari *Eskroto*; Pablo Cabeza, Juan Kar Muga, Evaristo, Mikel eta Aitor Gorosabel, Belen Mijangos, Mikel Kazalis, Kike Turmix eta Jabi Destroye. Horra hor 80ko hamarkadari Euskal Herrian bere izaera propioa eman zioten hamar pertsonaia ezagun. Hori guztiak elkarrizketatu zituen Iker Barandiaran kazetari arrasatearrak *Putz* aldizkariako. Eta guztiak *Hamar elkarrizketa* liburuan daude orain eskuragai.

80ko hamarkada esanguratsua hobeto ulertzeko klabeak ematen dizkigute elkarrizketok. Iker Barandiaran egileak dioenez, "oso gustura" egindako elkarrizketak dira hauek, eta elkarrizketatuek erakutsitako jarrera bikaina azpimarratzen du: "Oso lan polita izan da, eta eurei eskertu behar diet; izan ere, eurek kontaktatu zituzten historiak, euren bizitza... Pertsonaiaren *biluzte* bat izan da".

Karlos Agirreurreta *Mahoma*-ri eskaini dio egileak bilduma hau, "80ko hamarkadako espiritua ezin hobeto islatzen zuelako".

Azokan ez ezik, Arrasateko liburu dendetan ere dago salgai liburua, 10 eurotan.

'Asteon' telebista astekaria aurkeztuko du Topaguneak Durangon

Euskal kulturaren erreferente handienetako bat da Durangoko azoka, eta horixe aukeratu du Topagunea euskara elkartearen federazioak argitalpen berri bat aurkezteko, *Asteon* telebista astekaria, hain zuzen ere. Egubakoitzean, azokara joaten diren guztiak jaso ahal izango dute astekariaren 0. zenbakiaren ale bat doan.

Telebistaren inguruko astekaria izango da *Asteon*, doakoa, eta Euskal Herriko tokiko aldizkariaren gehigarri moduan aterako dena. Tirada euskal prentsan inoiz izan den handiena izango da: "Durangon

50.000 bat ale banatuko ditugu, eta helburua da zenbaki hori handitzen joatea", diosku Jasone Osoro aldizkari zuzendariak. 60.000 ale ateratzeko azpiegiturak badaude.

Oraingoz, 0. zenbakia eskuratu ahal izango da; lehenengoa urtaril erdialdetik aurrera kaleratuko dute eta, gurean, GOIENKARIArekin batera banatuko da.

Aldizkariak izango ditu telebistaren inguruko denetarikoko edukiak: erreportajeak, iritzi saila, telebistako berriak, elkarrizketak, aspaldiko telebista saioren gaineko

kontuak, entretenimendua, asteko programazioa... ETB eta baita gurean ikusten diren Estatuko telebista kateen eta saioren gaineko informazioa ere egongo da. Hain zuzen, 0. zenbakian Estitxu Fernandezi eginiko elkarrizketa izango da eskaintza nagusia. Era berean, *Asteon* zer den aurkezteko modua izango da zenbaki hori.

Eremuaren eta agertuko diren pertsonaien inguruan, Jasone Osorok dio: "Euskal Herriko pertsonaiek izango dute lehentasuna, baina telebistarekin zerikusia duen edozein pertsonaia izango du tartea".

Jasone Osoro, *Asteon*-eko zuzendaria.

MUSIKA/ FERMIN MUGURUZAK BERGARAN JOKO DU, BIHAR, ZAPATUA

FERMIN MUGURUZA, MUSIKARIA

“Nire abesti batzuk mantsotu egin dira, baina betiko energiak hor jarraitzen du”

LEIRE KORTABARRIA

Urte asko dira Fermin Muguruzak Debagoienez azken aldiz jo zuenetik. Horregatik, oso berezia izango da abenduaren 6an, zapatua, Bergarako Jam aretoan eskainiko duen kontzertua. Horrez gain, musikariak baieztatu du hau izango dela bere azken bira.

Komunikazioa Tour hasi berri duzu. Zer moduzko harrera izaten ari da?

Orain arte, oso ona. Alde batek, baziren hiru urte aurreko bira egin genuenetik. Bestetik, honetarako aukeratutako luxuzko hamabi musikari igotzen dira agertokira, eta bi ordutik gorako emanaldia da. Horrez gain, bi talde berri egongo dira: 4 Itzal taldea, euren lan berria aurkeztzen; eta Bad Sound System DJ eta rap kolektiboa. Horiez gain, beste musikari batzuk ere egongo dira: Sorkun eta Begoña Bang Matu bakarlariak, adibidez.

Aspaldian ez zenuen geurean jotzen...

Ez, eta banuen horretarako gogoia. Jam aretoa asko gustatzen zait, euren urteko programazio-agatik eta bertako taldeak eta publikoa zaintzen dituelako. Bestalde, Debagoienez lagun asko ditut, eta horiek ikusteko aukera ederra izango da. Eta ezin ahaztu Durangoko azokatik ere jende asko etorriko dela. Jai polita izatea espero dut. Nire ibilbide osoko kantak eskainiko ditut: azken diskootako abestiak, eta baita *Dub Manifest* eta *Brigadistak Sound System* diskoetakoak ere. Kortatu, Negu Gorriak... taldeetako abestiak ere eskainiko ditugu.

Hainbeste aldaketaren ondoren, zein ezaugarri komun izan ditu zure ibilbideak?



Bergarako Jam aretora itzultzeko gogoz zegoela esan du Fermin Muguruzak.

Egoera soziala eta pertsonala aldatu egin dira, baina bada go enbor bat, eta da musika beltzarekiko dudak betidaniko pasioa, punk jarraitzearekin nahastua. Hain zuzen ere, hori eta autogestioa izan dira nire zutabeak musikan. Bestalde, independentzia defenditzen dut oraindik, eta multinazionalen eskaintzak ez ditut sekula onartu.

Baretze antzeko bat ere izan da zure ibilbidean, ezta?

Kortatu, Negu Gorriak edo Dut-etik hona akaso bati, mantsotu egin dira zenbait kantu; baina energiak hor jarraitzen du. Kontzertuetan ikusten da

“Komunikazioa baino gehiago, komunikakzioa lortu behar dugu, ekintza aktibo bat”

energia ez dela amaitzen, eraldatu baizik... Nire ibilbideko une batzuetan, akaso, tentsio handiak izan da; beste une batzuetan, dantzagarrigoa. Baina energia horrek hor jarraitzen

du, eta kontzertuetan ikusten da zenbaterainokoa den.

Komunikazioaren aroa ala inkomunikazioarena ote bizi izaten garen hau?

Nik uste dut komunikazioarena baino gehiago, informazioaren garaia dela; baina informazioaren manipulatua eta bide bakarrekoa. Era berean, gai jakin batzuen gainean larregizko informazioa dago, beste batzuetan tokirik gabe. Lortu behar da harreman bat non gu entzule izango garen, baina baita hitz egiteko gai. *Komunikakzioa* behar da; hau da, ekintza aktiboa.

“Sendatu, ez; sendotu”

Euskal Herriko egoeraz ere egin genuen berba Ferminekin; hain zuzen, Martin Ugalde parkea miatu zuten egun berean hitz egin genuen: “Euskaldunok indefentsio egoeran gaude. Ahalik eta azkarren, ezker-tiar, abertzale eta aurrerakoi garenok bat egin behar gogok geurea zaintzeko”, esan zigun Ferminnek.


Mundu osotik asko bidaiatutakoa da Fermin Muguruzak, eta batez ere Latinoamerikako herriekin elkartzasun handia erakutsi du beti. “Bidaiatzeak irakatsi dit kanpoko herriak maitatzen, baina are gehiago Euskal Herria maitatzen. Bidaiatzearekin batera abertzaletasuna sendatu egiten dela esan izan da, baina nik uste dut sendatu ordez sendotu egiten dela”.

Estatuan zenituen kontzertu batzuk bertan behera geratu dira. Hala ere, Estatuan arrakasta handia duzu...

Bai. Ni betidanik oso egoskorra izan naiz, eta defenditu izan dut Estatuan ere jo behar nuela, badagoelako han jende asko faxismoaren aurka dagoena, konprometitua dena, eta begirunez ikusten duena Euskal Herriatik ateratzen den guztia. Extremaduran lehenengo aldiz jo genuenez, jendea Ikurrinekin-eta etorri zen kontzertura... Konturatu naiz komunikabideek euskaldunon eta Estatuen gainean ematen duten irudia faltsua dela, alde biondako.

2x1

Armazoi berri bat erostean, **lente progresiboak bitik bat doan***



 **INSTITUTO OPTICO**

Erdiko kale 22. Tel.: 943 79 71 68
Hiper Eroski. Tel.: 943 79 78 26
ARRASATE

Andra Mari 8. Tel.: 94 620 29 86
DURANGO - BIZKAIA

*1,5 indizeko lente organiko edo mineralak (± 4 esf. ± 2 zil.)

Abenduak 5-12

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ARRASATE

► **Gabonetako marrakzi lehiaketa** sari banaketa izango da gaur, egubakoitza, Okendoko ludotekan, 17:00etan.

BERGARA

► **Atxilotuta egon diren** lagunen egoeraren inguruko hitzaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 19:00etan. Segidan, *Thessalonika 2003* ekaina bideoa eskainiko dute; azkenik, Zaragozako Imagina que no taldearen eskutik, *La puta en el manicomio* antzezlanaren egongo da.

► **Euskal Herriak bizi duen egoera politikoaren inguruko** hitzaldia egingo du Fernando Barrenak eguenean, hilak 11, Elementaleko aretoan, 19:00etan. Bergara Aurrera plataformak antolatuta du.

ESKORIATZA

► **Gabonetako parkerako begiraleak** behar ditu Udalak. Interesa dutenek abenduaren 10ean aurkeztu beharko dute curriculum, kultura etxean.

OÑATI

► **Lana eta gazte baten etorkizun profesionala** hitzaldia egingo du Jose Mari Roteta Egailaneko teknikariak abenduaren 10ean, eguztzena, Txantxiku ikastolan, 18:30etan. Batxilergoko 2. mailako ikasleei eta gurasoei dago zuzenduta.

► **Oñatiko monumentu garrantzitsuenak** izeneko bisita gidatua antolatu du Turismo Bulegoak bihar hasi, zapatua, eta astelehenera arte, hilak 8. Sancti Spiritus Unibertsitatea, Mikel Deunaren parrokia, jauregiak eta Bidaurretako monasterioa erakutsiko dituzte. 12:00etan eta 16:15ean izango dira. Turismo Bulegotik abiatuko dira.

► **Gorbeako parke naturalera** irteera antolatu du Aloña Mendi elkarteak abenduaren 14an. Urigoiti-Itxina-Barazar izango da ibilbidea. Parrokia aurrean elkartuko dira, 08:00etan. Izena emateko azken eguna eguna da, Aloña Mendi tabernan.

MUSIKA

ARETXABALETA

► **Sergei Osokin** errusiar akordeoi jotzailearen emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, parrokian, 20:00etan. Iazko Arrasate Hiria nazioarteko akordeoi lehiaketako lehen saria irabazi zuen Osokinek.

ARRASATE

► **Los chicos Boom eta Los Cretinos** taldeen kontzertua egongo da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30etan.

► **Keike eta Spezial Guest** taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

► **Varietés** izeneko akordeoi saioa egongo da bihar, zapatua, Mondragon hotelean, 22:00etan. Hainbat estilotako piezak joko dituzte.

► **Sergei Osokin** akordeoi jotzailearen emanaldia egongo da etzi, domeka, San Juan Bataiatzailearen parrokian, 20:00etan.

► **Bouquet** taldearen emanaldia egongo da etzi, domeka, Kajoi tabernan, 23:30etan.

► **Arrasateko akordeoi lehiaketak** jokatu dira hilaren 7ra arte, domeka. Klausura ekitaldia hilaren 8an izango da, astelehena, Amaia Udal Antzokian, 11:30etan.

BERGARA

► **Ojos de Brujo, Ttukunak eta DJ Floro** musikariaren emanaldia egongo da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan.

► **Fermin Muguruzaren eta Kontrabanda bere taldearen emanaldia** egongo da bihar, zapatua, Jam aretoan, 21:30etan. Bad Sound System eta 4 Itzal taldeek ere joko dute.

► **Ezoziko Ama (Plazentzia) eta Aritzeta (Bergara)** abesbatzen emanaldia egongo da bihar, zapatua, Santa Marinako elizan, 20:00etan. Sarrera doan izango da.

► **Musika eskolako ikasleen** kontzertua egongo da datorren martitzenean, abenduak 9, udal pilotalekuan, 19:00etan.

LEHIAKETAK

ARETXABALETA

► **XV. Loramendi Literatura Lehiaketa** abian dago. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei dago zuzenduta. Ipuina, poesia, grabaketak eta beste hainbat atal antolatuta dituzte. Lanok abenduaren 18a baino lehen eraman beharko dituzte Loramendi elkartearen egoitzara.

► **Gabonetako erakusleio lehiaketa** antolatu du Kultura sailak, parte hartu gura duten komertzio guztiendako. Abenduaren 8an hasiko da, eta hilaren 31n bukatu.

ESKORIATZA

► **Gabonetako erakusleio lehiaketa** deitu du Udalak. Printzipioz, komertzio guztiak parte hartuko dute, udalari hala jakinarazi ezean; hortaz, parte hartu gura ez dutenek 943 71 46 88 telefonora deitu beharko dute. Parte hartzaileek apainduta eduki beharko dituzte erakusleiook abenduaren 17tik urtarrilaren 6ra arte, biak barne. 210 eurokoa izango da sari nagusia.

EUSKAL HERRIA

► **Amodiozko Gutunen XII.**

Berrigara Lehiaketa abian dago. 1989an edo lehenago jaiotako edozeinek har dezake parte. Jatorrizko lana eta hiru kopia bidali beharko dituzte honako helbidera: Jardun Elkarte, 103 PK; 20570 Bergara; edo kulturajardun@topagunea.com helbidera.

IKASTAROAK

ARRASATE

► **Aisialdiko begirale** ikastaroa antolatu du Txatxilipurdik urtariletik ekainera, zapaturo, Arrasateko aterpetxe baten. Plaza mugatuak daude. Matrikula 200 euro kostako da, aterpetxea kanpo. Horretarako, deitu 943 79 54 46 telefonora edo jo euren egoitzara, Pablo Uranga kalean.

► **Dantza garaikide** ikastaroa antolatu du Txatxilipurdi taldeak urtarrilaren 10, 17 eta 24an, herriko kiroldegian, 10:30-13:30. 12-30 urte bitartekoei dago zuzenduta. Inprobisazioa, koreografiak... landuko dituzte. 12-16 urte artekoek 5 euro ordaindu beharko dituzte; gainerakoek, 10 euro. Plaza mugatuak daude, hoguei, hain zuzen ere.

► **Sexualitate ikastaroak** egongo dira abendu osoan Guraso Eskoletan, Prebentzio Sailaren eskutik. Honako gaiak landuko dira, besteak beste: adinaren araberako sexuazio prozesua, sexu heziketaren garrantzia...

► **Talagintza ikastaroa** antolatu du Ekin Emakumeak elkarteak abenduaren 13an, 11:00etatik 13:00etara, euren egoitzan (Pablo Uranga kalean). Izenemate epea abenduaren 5ean bukatuko da, egubakoitza, hortaz. Matrikula doan da. Izena emateko, deitu 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefonoetara.

BIDEOA

BERGARA

► **Generación robada** filmaren emanaldia egongo da hilaren 10ean, eguztzena, gaztetxean, 19:30etan.



► KONTZERTUA


OJOS DE BRUJO, DJ FLORO ETA TTUKUNAK GAUR JAM ARETOAN

Mundu osoan 120 emanaldi egin ondoren, Ojos de Brujo taldeak nazioartean bere burua ezagutzera ematea lortu du. Jam aretoan, Bergaran, Karakaseketour 03 izeneko bira bukatutzat emango dute; gainera, hau izango da Euskal Herriko kontzertu bakarra. Ama Lurrarekin, iraganarekin... lotura estua duten doinuak jorratuko ditu talde horrek kontzertuan; datoren udaberrira arte ez dute emanaldi gehiagorik egingo. Eurekin batera, oso gonbidatu bereziak agertokian: DJ Floro eta Ttukunak. Azken talde honek arrakastaz lortu du txalaparta eta flamenkoa uztartzea, eta txalaparta Europako, Amerikako eta Asiako txoko guztietan ezagutzera ematea.

Non: Bergarako Jam aretoan. **Noiz:** gaur, abenduak 5, egubakoitza. **Ordua:** 22:00etan.

Garitano podologia

- Oinetako arazoaren tratamendua
- Ikerketa biomekanikoa
- Neurria egindako plantillak



Iturriotz 7 bis • ARRASATE
Tel.: 943 79 67 02



AKORDEOI DOINUAK NAGUSI, NAZIOARTEKO LEHIAKETAREN ESKUTIK

XI. Nazioarteko Arrasate Hiria akordeoi lehiaketak abian dira. Abenduaren 5etik 8ra kanporaketa saioak egingo dituzte parte-hartzaileek eta hilaren 8an final handia izango da, jendaurrean, Amaia Udal Antzokian, 11:30ean. Bestalde, aurten, berrikuntza moduan, *Varietés* emanaldia egongo da bihar, zapatua, Mondragon hotolean, 22:00etan. Akordeoi emanaldia izango da, eta hainbat musika estilo jorratuko dituzte.

JAIK

ANTZUOLA

► **Txistorra jana** antolatu du gazte batzarrak etzi, domeka, Kalebarrenean. Arratsalde osoan egongo dira.

ARRASATE

► **San Nikolas boloa** egongo da bihar, zapatua, Herriko Plazan, 12:00etan eta 12:30ean. Ohitura den bezala, San Nikolas kantatzen duten ume guztiei gozokiak eta bestelakoak botako dizkiete udaletxeko balkoitik.

► **Bedoña auzoko jaiak** ospatuko dituzte bihar hasi, zapatua, eta astelehenera arte. Doke txapelketa, luntxa, umeendako jolasak, txokolate jana... izango dira, besteak beste.

BERGARA

► **Gabonetako argiak piztu** eta jaiotza ipiniko dute udaletxean. Datorren egubakoitzean izango da, abenduak 12.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

► **Kongon izan zireneko argazkien** erakusketa egingo dute Bittor eta Andres Arbuluk eta Jone Letek. Bihar eta etzi egongo da ikusgai, Olanar etxean, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00.

OÑATI

► **Zirkoa eta Txotxongiloak izeneko** erakusketa egongo da abenduaren 11n hasi eta urtarrilaren 4ra arte, kultura etxean, astegunetan 18:30-20:30 eta zapatu eta domekatan, gainera, 12:00-14:00. Corrado Massaci italiarrak egindako txotxongilo eta zirko irudiak egongo dira.

ANTZERKIA

ARRASATE

► **Izena duen guztia da** ipuin bilduma kontatuko du Jose Mari Carrere ipuin kontalariak abenduaren 12an, egubakoitza, Santa Marinako auzo liburutegian, 17:00etan.

BERGARA

► **De profesión, princesa** ume eta gaztetxoei zuzendutako antzezlan eskainiko dute Oihulari Klown eta Trokolo taldeek gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

OÑATI

► **Elvira Dorado** antzerki eta dantza ikuskizuna eskainiko du Iliacan taldeak datorren egubakoitzean, abenduak 12, Santa Ana antzokian, 22:30ean. Lope de Aguirreren eta bere alaba Elviraren bizitzan dago oinarrituta.

Zinema

BERGARA

■ NOVEDADES

Te doy mis ojos
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 17:00, 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30.

Suíte Habana
Eguena, zine-kluba: 20:00.

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

Carmen
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30, 22:30.

Papá canguro
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.
Astelehena: 17:00.

Dolls
Eguena, zine-kluba: 20:00.

EIBAR

■ UNZAGA

Al otro lado del mundo
Egubakoitzean eguaztenera: 17:00, 19:30, 22:15.

■ RIALTO

Buscando a Nemo
Egubakoitzean eguaztenera: 17:00, 19:30, 22:15.

GASTEIZ

■ GURIDI

Looney tunes
Egubakoitzean astelehenera: 17:30, 20:00.

Buscando a Nemo
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Time line
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Love actually
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Hero
Egunero: 22:30.

Lágrimas del sol
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua, domeka eta astelehena: 17:00, 19:45.

Al otro lado del mundo
Egubakoitzean astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Cabin fever
Egunero: 22:30.

S.W.A.T., los hombres de Harrelson
Egubakoitzean astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Al otro lado del mundo
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Sorgin bat etxean
Egunero: 17:15.

Love actually
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

La pelota vasca
Egunero: 17:15, 20:00.

Looney tunes
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Time line
Egunero: 17:15, 20:00, 22:30.

Elephant
Egunero: 22:30.

Matrix revolutions
Egunero: 17:25, 20:10, 22:40.

Carmen
Egunero: 22:30.

Lo mejor que le puede pasar a un cruasán
Egunero: 20:00, 22:30.

Todo lo demás
Egunero: 17:30, 20:15, 22:45.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ FLORIDA-GURIDI

Te doy mis ojos
Egubakoitzean astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

La suerte dormida
Egunero: 20:00.

Deep blue
Egubakoitzean astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Elephant
Egunero: 17:30, 22:30.

Planta 4ª
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Funerarias
Egunero: 17:30, 22:30.

Samsara
Egubakoitzean astelehenera: 17:00, 19:45, 22:30.

Todo lo demás
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

Mystic river
Egunero: 20:00.

■ ABACO-LAKUA ZINEMAK

Buscando a Nemo
Egubakoitza eta zapatua: 16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.
Egunero: 16:00, 18:15, 20:20, 22:30.

Lágrimas del sol
Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 19:45, 22:20, 01:00.
Egunero: 16:25, 19:45, 22:20.

Lo mejor que le puede pasar a un cruasán
Egubakoitza eta zapatua: 22:15, 00:30.
Egunero: 22:15.

Matrix revolutions
Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 19:20, 22:05, 00:45.
Egunero: 16:05, 19:20, 22:05.

Al otro lado del mundo
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:15, 22:10, 01:00.
Egunero: 16:15, 19:15, 22:10.

S.W.A.T., los hombres de Harrelson

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 19:30, 22:00, 00:30.
Egunero: 16:30, 19:30, 22:00.

Cabin fever

Egubakoitza eta zapatua: 16:20, 18:15, 20:10, 22:05.

Ponte en mi lugar

Egubakoitza eta zapatua: 16:10, 18:20, 20:20, 22:25, 00:45.
Egunero: 16:10, 18:20, 20:20, 22:25.

En América

Egubakoitza eta zapatua: 16:25, 20:00, 22:25, 00:45.
Domeka: 16:25, 20:00, 22:25.

Funerarias S.A.
Egunero: 16:10, 18:10, 20:10.

Eguaztenea, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX

Matrix revolutions
Egubakoitzean domekara: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Egunero: 12:15, 16:00, 19:00, 22:00.

S.W.A.T., los hombres de Harrelson

Egubakoitzean domekara: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:40.

Crueldad intolerable

Egubakoitzean domekara: 16:40, 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.
Domeka: 12:15, 16:40, 18:40, 20:40, 22:40.

Love actually

Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 19:00, 22:00, 00:25.
Domeka: 12:15, 16:05, 19:00, 22:00, 00:25.

Mystic River

Egubakoitzean astelehenera: 22:15, 00:45.

Looney tunes

Egubakoitzean astelehenera: 12:15, 16:00, 18:15, 20:20.

Lágrimas del sol

Egubakoitzean domekara: 15:30, 17:45, 20:05, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:30, 17:45, 20:05, 22:30.

Lo mejor que le puede pasar a un cruasán
Egubakoitza: 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.
Zapatutik astelehenera: 15:45, 20:20, 22:20, 00:20.

Días de fútbol

Egubakoitzean domekara: 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.
Domeka: 12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20.

Buscando a Nemo

Egubakoitzean domekara: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30.

Time line

Egubakoitzean domekara: 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:40.
Domeka: 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:40.

Al otro lado del mundo

Egubakoitzean domekara: 16:15, 19:00, 22:00, 00:45.
Domeka: 12:15, 16:15, 19:00, 22:00.

Cabin fever

Egubakoitzean domekara: 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.
Domeka: 12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35.

Ponte en mi lugar

Egubakoitzean domekara: 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Domeka: 12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10.

La maldición

Egubakoitza eta zapatua: 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.
Domeka: 12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05.

Astelehena, ikuslearen eguna.

Mystic river: ●●●●● | Love actually: ●●●● | Te doy mis ojos: ●●●● | La pelota vasca: ●●●● | Crueldad intolerable: ●●

ESKASA: ● BALEKOA: ●● ONA: ●●● OSO ONA: ●●●● BIKAINA: ●●●●●

KRITIKA

MASTER AND COMMANDER

PUNTUAZIOA: ●●●●

ZUZENDARIA: Peter Weir.

AKTOREAK: Russell Crowe, Paul Bettany.

Master and Commander filmarekin Peter Weir-ek zinema klasiakoaren zaporea berreskuratzeko aukera ematen digu. Abentura belikoen generora hurbiltzen da abentura hitzaren benetako esanahira heltzeko. Hori lortzeko, zuzendari australiarra Patric O'Brian-en itsasoko abenturako eleberrietan oinarritzen da. Momen-

tu honetan, genero honetako filmak ekin-tzetan eta erritmo azkarreko muntaian babesten dira, pertsonaien garapenerako eta hausnarketarako denborarik eman gabe. *Master and Commander*-en ez da halakorik gertatzen. Honetan, denbora ematen zaigu itsasontzi baten hilabete askoko elkarbizitza nolakoa den ezagutzeko: mota desberdinetako pertsonaiekin, sortzen diren tentsiozko eta arriskuko momentuekin eta gertatzen diren lasaitasun guneekin (bazkariak, musika jotzen dutenean uharteko bisita). Weir-en filma lan deskribatzailea eta zehaztua da: batailetarako egin behar diren prestaketa guztiak erakusten dizkigu; giro guztiak zehaztasun handiz deskribatzen dizkigu (itsasoko ekaitzak); pertsonen arteko gatatzak eta kontrako baldintzak (edateko urik eza, odola, zaurituen mina) tripulazioan eragin fisi-



ko eta psikikoak izango dute. Oso ondo ematen zaigu aditzera toki mugatu batean eta irteteko aukerarik gabe denbora askoan baldintza zailtan bizi behar duten pertsonen artean sortzen den giro klaustrofobikoa.

Horrez gain, filmak bi pertsonaien arteko harremanak ezagutzeko aukera ematen digu: bata, Aubrey kapitaina, gerlaria, ausarta eta diziplinaren aldekoa; bestea, Maturin sendagilea, zientzialaria. Hasieran, biek pertsonaia antagonikoak dirudite, baina azken finean nahiko antzekoak direla konturatuko gara: bata mamua dirudien arerio baten bila eta bestea topatzeko oso zaila den hegazti baten bila obsesionaturik dauden pertsonaia, baina biak, egoerak behartzen duenean, atzera egiten dakiten horietakoak.

Master and Commander-ek alde batetik, abenturaren osagai errealista erakusten digu: mina, arriskua... Eta, bestetik, mota honetako errelatoek daukaten kutsu nobelaria eta heroikoa.

ANTONIO ZABALA